



## ZUHAIZTIEN KUDEAKETAKO ADITU EUROPARRAK DONOSTIAN BILDU DIRA

Europako hainbat herrialdeko ordezkariak, zuhaitzen kudeaketan adituak, Donostian izan dira aste honetan, irizpideak partekatzeko eta gaiari buruzko estandarrak garatzeko topaketa batean.

Marisol Garmendia Ekologia zinegotziak adierazi duenez, “egiten ari garen zuhaitziaren kudeaketa-politikagatik aukeratu dute Donostia, eta, horregatik, hainbat parketako aleak bisitatu dituzte, hala nola Aiete eta Cristina Enea parkekoak, Kontxako tamarindoak eta haien adarrei eusteko sistema, Pio XII.ean transplantatu ziren sekuoiak edo Frantziako Pasealekuko hainbat ezki eusten dieten ainguraketak”

Aditu-talde hori Aieteko jauregian bildu da, eta bertan aurrez aurreko lan-bilerak egin dituzte, bideokonferentzia bidez, Holanda, Belgika, Txekia, Polonia, Letonia, Espainia, Italia eta Alemaniako zuhaitz-espezialistekin.

# Prensa oharra

## Nota de prensa



Egun hauetan hainbat gai jorratu dituzte, hala nola zuhaitzak inaustea, landatzea edo zuhaitzak behar bezala mantentzeko erabiltzen diren ainguratzesistemak. Garmendiak adierazi duenez, lortu nahi dutena da Europa mailako irizpideak bateratzea eta, horrela, Europar Batasunean prozedura estandarrak aplikatzea, herrialde bakoitzeko legediaren arabekoak. Proiektua esperientzia handiko 10 profesionalak osatzen dute.